



Asociación de Amigos y Amigas  
de la RASD de Álava  
Arabako SEADen Lagunen Elkartea



## SAHARA DOINU ETA NEURRI LIBREAN BERTSOPAPER-LEHIAKETARAKO OINARRIAK

Mendebaldeko Saharak jasaten duen espoliazioaren inguruan sentzibilizazioa lantzeko asmoarekin Arabako Bertsozale Elkartek, Arabako SEADen Lagunen Elkartearekin elkarlanean sortutako bertso-paper lehiaketa da *Sahara doinu eta neurri librean*.

### **1. Parte-hartzaileak**

Lehiaketan nahi duen orok parte hartu ahal izango du.

### **2. Saria**

Bi pertsonentzako bidaia Tindufeko (Argelia) errefuxiatu kanpamenduak ezagutzera.

### **3. Aurkezteko modua eta epea**

Lanak jasotzeko azken eguna 2022ko maiatzaren 31a izango da.

Euskeraz idatzitako bertso sortak bakarrik onartuko dira. Gutxienez 3 eta gehienez 6 bertso izango dira eta banaka edo binaka parte hartzeko aukera egongo da.

Parte-hartzaileek haien lana eta parte hartzeko datuak [araba@bertsozale.eus](mailto:araba@bertsozale.eus) helbide elektronikora bidali beharko dute. Dokumentua PDF formatuan igorri beharko da bertso sortarekin eta doinuaren izena zehazturik azaldu behar da. Modu honetan izendatu behar da: bertsopaperarenizenburua.pdf (Adibidez: saharadoinuetaneurrilibrean.pdf).

Mezuan egileen honako datuak azaldu beharreko dira:

Izen                    abizenak  
Jaioteguna eta jaioterria  
Helbidea  
Telefonoa  
Posta elektronikoa

### **4. Epaimahaia**

Epaimahaia hiru epaliez osatuko da eta Arabako Bertsozale Elkartearen eta SEADen Lagunen Elkartearen artean aukeratuko da.

Epaimahaiak ekainaren 24an jakinaraziko du zeintzuk diren saria irabazi duten bertsoak.

Epaimahaiari lanak modu anonimoan helaraziko zaizkie, beraz ez dute jakingo nork eginak izan diren epaiak iraun bitartean.

### **5. Sari-banaketa**

Sari-banaketa 2022eko ekainaren 30ean izango da horretarako propio antolatu den egunean. Horma-irudi baten inaugurazioa egingo da. Bertan, bertso-saio bat antolatuko da eta epaimahaiak aukeratzen dituen bertso-paperak bertan aurkeztuko dira jendaurrean.



Asociación de Amigos y Amigas  
de la RASD de Álava  
Arabako SEADen Lagunen Elkarte



## 6. Kontuan hartu beharreko beste batzuk

Gaiari buruzko informazioa aurki daiteke honako helbide leku hauetan:

<https://www.bertsozale.eus/eu/araba/albisteak/sahara-bertso-paper-lehiaketa>

<https://www.saharaelkartea.org/eu/>

<https://www.artecontraelexpolio.org>

<https://www.westernsaharaisnotforsale.org>

<https://wsrw.org/es>

<https://vimeo.com/474589444>

<https://ceas-sahara.es/espana-sahara-occi-expolio-recursos-naturales-origen-conflicto/>

Horma-irudiaren lanak maiatzaren 10ean abiatuko dira espoliazioari buruzko hitzaldi batez. Parte hartu nahi duten lagunek artista profesionalek eskainiko dituzten 3 sorkuntza-saiotan hartuko dute parte. Aurretiazko zirriborroa adostu ondoren, ordutegiak antolatuko dira nahi duten pertsona boluntarioek horma-irudia margotzeko.

Arabako Bertsozale Elkarteak eta SEADen Lagunen Elkarteak saritutako lanak beren kabuz edo hirugarrenen bidez argitaratu ahal izango dituzte, edozein bide eta modu baliatuta.

Lehiaketa honen garapenaren eta oinarri hauen interpretazioaren inguruko gatazka oro antolatzaileek ebatziko dute.

Datu pertsonalen babesari buruzko indarreko araudia beteko dela ziurtatzen dute antolatzaileek.